


KLASIKOAK
ESKURA



Altxorraren
uhartea
Robert L. Stevenson

ANAYA
HARITZA



LEHEN ZATIA
ITSASLAPUR
ZAHARRA

Itsasgizon zaharra ostatuan



Trelawney lur-jabeak eta Livesey doktoreak Altxorraren uharteari buruzko xehetasun guztiak idatziz jartzeko eskatu zidaten, hasieratik amaierara guzti-guztia zehazteko, uhar-tearen kokalekua izan ezik, altxorraren zati bat oraindik bertan dago eta. 17... urtean hasi naiz idazten, eta aita Benbow Almirantea ostatuaren jabea zen garaira itzuli naiz; sasoi hartan, aurpegian itzelezko sable-zauria zuen marinel zahar eta beltzaran hark hartu zuen ostatu gure etxean.

Atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut. Pauso astun eta geldoak ematen zituen; haren atzetik orgatila bat zetorren, eta, orgatilan, kutxa bat. Gizon handia, sendoa eta lodia zen; larruazal beltzarandua zuen, eta sorbaldetarainoko mototsa zeraman kasaka urdinaren gainean. Eskuak arrakalatuta eta orbainez beteta, eta azkazal beltzak eta apurtuak zituen; masail osoko sable-zauriak kolore zuri zikin eta morea zuen. Senadira¹

¹ *Senadi*: lehorrean sartzen den itsas zatia, ertz edo itxura biribilekoa.

begira gogoratzen dut, txistuka ari zen bitartean; bat-batean, geroago hainbeste aldiz kantatuko zuen marinel-kanta zaharrari ekin zion:

*Hamabost gizon hilaren kutxan...
Kar-kar-kar, eta botila bat ron!*

Ahots ozena eta pixka bat latza zuen, eta dibidietaren² barretan findu eta haustu zela ematen zuen. Atea jo zuen, eta aita agertu zenean, baso bat ron eskatu zuen; astiro-astiro edan zuen, ulertuen eran dastatuz, eta labarretara begira jarraitu zuen.

—Erraz iristeko moduko senadia —esan zuen, azkenean—; eta taberna leku onean dago. Jende asko etortzen al da, lagun?

Aitak zoritxarrez oso jende gutxi etortzen zela erantzun zion.

—Orduan —esan zuen—, hauxe izango da nire ostatua. Ez dut gauza askorik behar, rona, urdaia eta arrautzak baino ez. Nor naizen? Esadazue *kapitain*. Hara!, badakit zeren zain zaudeten... hor duzue —eta urrezko hiruzpalau txanpon bota zituen lurrera—. Esango didazue amaitzen denean —bukatu zuen, kapitain baten harrotasunez.

Egia esan, arropa lorrinduak eta hizkera arrunta izan arren, ez zuen marinel soilaren itxurarik; aginduak ematen ohituta zegoen ofizialaren antza zuen.

Gizon isila zen, normalean. Eguna senadian edo labarren goiko aldean ematen zuen, metalezko kataloxa aldean zeramala; gaeuz, salako bazter batean esertzen zen, sutondoan, ron ia hutsa edaten. Ez zuen ia inoiz agurrik itzultzen. Egunero, ibi-

² *Dibidieta*: itsasontzietan zama astunak mugitzeko erabiltzen den ardatz bertikaleko tornua; ardatz horretan, kable bat biltzen da, barren bidez bira egiten duen artean.



laldia egin eta gero, galdera bera egiten zuen beti: ea bidetik marinela itxurako gizonik igaro ote zen. Hasieran, lanbideko baten bat aurkitu nahi zuela uste izan genuen; baina, gero, itsasgizonekin harremanik ez zuela nahi konturatzen hasi ginen.

Behin, bazter batera eraman ninduen, eta zilarrezko lau *penny* emango zizkidala agindu zidan, baldin eta «hanka bakarreko marinela zain» egon eta, agertzekotan, berari esaten banion. Askotan, hilaren hasieran neure saria eskatzen nionean, puzka hasten zen, niri begira-begira; baina, astea amaitu baino lehen, hobeto pentsatzen zuen, itxuraz: nire lau *pennyak* ematen zizkidan, eta «hanka bakarreko marinela zain» egoteko esaten zidan berriro.

Ez dago esan beharrik zenbat aldiz agertzen zen nire ametsetan pertsonaia hura. Ekaitz-gauetan, mila deabruen itxuran ikusten nuen. Batzuetan, zangoa belaunean moztuta izaten zuen; beste zenbaitetan, aldakan moztuta ikusten nion; gau batzuetan, munstro itxuran agertzen zitzaidan. Munstro hark zango bat baino ez zuen, eta gorputzaren erditik ateratzen zitzaion. Ametsik gaiztoena nire atzetik saltoka zetorrela ikustea izaten zen. Ematen zidan saria oso garesti ordaintzen nuen irudi gaizto haiekin.

Hala ere, besteei baino askoz beldur gutxiago ematen zidan. Gau batzuetan, jasan zezakeena baino askoz ron gehiago edaten zuen, eta, orduan, marinela kanta zahar eta izugarriak kantatzen zituen, munduan bakarrik biziko balitz bezala. Baina, batzuetan, denentzako erronda eskatzen zuen, eta istorioak entzutera edo kanten korua egitera behartzen zituen gure bezero gaixoak. Sarri, haien *Kar-kar-kar, eta botila bat ron!* kanta zoroak etxe osoa astintzen zuen, eta guzti-guztiek abesten zuten, ahalik eta ozenen, badaezpada ere.

Beldurgarrienak itsaslapurraren istorioak ziren; urkatuei, itsasoko ekaitzei, Dortoka uharteei eta Karibeko gertaera ankerrei buruzko kontakizun izugarriak izaten ziren. Haren istorioen arabera, itsasoetako gizonik gaiztoenen artean ibili zen. Horrez gain, itsaslapurrak erabiltzen zuen hizkerak zirrara gaiztoa eragiten zien gure auzotar apalei, hark deskribatzen zituen erailketen bestekoa ia. Aitak egoera hark ostatuaren hondamena ekarriko zuela esaten zuen beti, baina ni mesede egin zigulakoan nago. Herritarrak izutu egiten ziren une haietan; baina, gero, istorio haiek gogora ekartzea gustatzen zitzaien: emozioa ematen zioten landako bizimodu lasaiari.

Hala ere, itsaslapurrak gure ekonomia hondatzeko ahaleginak egin zituen nolabait. Izan ere, hainbat aste eta hilabetetan geratu zen ostatuan, aitari eman zion dirua aspaldi agortuta egon arren; aitak ez zuen diru gehiago eskatzeko kemenik izan.

Behin bakarrik egin zion aurre norbaitek; amaierako egunetan gertatu zen, aita makalik zegoela. Arratsalde batean, Livesey doktorea etorri zen aita ikustera, eta amak eskaini zion afari arina hartu zuen. Afaldu ostean, pipa erretzera joan zen salara, zaldia herritik ekarri arte, ostatuan ukuilurik ez genuen eta. Bat-batean, kapitainak betiko kanta hasi zuen:

Hamabost gizon hilaren kutxan...

Kar-kar-kar, eta botila bat ron!

Ronak eta deabruak gainerakoa eramane...

Kar-kar-kar, eta botila bat ron!

Betiko kontua zen guztiontzat, Livesey doktorearentzat izan ezik, eta laster konturatu nintzen ez zitzaiola asko gustatzen. Kapitaina alaitzen joan zen kantatu ahala, eta, azkenean, gogor jo zuen mahaia eskuaz. Denek zekiten halakoetan isilik

egon beharra zegoela, eta guztiak isildu ziren, Livesey doktorea izan ezik; doktoreak lehen bezala jarraitu zuen lorezainarekin hizketan. Kapitaina adi-adi geratu zen, une batez; mahaia berriz jo, eta birao zikina atera zuen ahotik:

—Isilik hor, bizkarrean!

—Nirekin ari al zara? —galdetu zuen sendagileak.

Eta hauxe esan zion, gaizkileak beste birao bat bota eta baietz erantzun zionean:

—Gauza bat baino ez dizut esango: rona edaten jarraitzen baduzu, munduak zital zikin bat gutxiago izango duela!

Izugarría izan zen itsasgizon zaharraren haserrea. Salto batez zutitu zen; aiztoa atera eta horman iltzatuko zuela esan zion sendagileari. Mehatxu hark ez zion zirkinik eragin Livesey doktoreari, eta, tonua aldatu gabe, sala osoan entzuteko bezain ozen, baina era lasai eta irmoan, hauxe esan zion:

—Labana hori oraintxe bertan gordetzen ez baduzu, zin egiten dizut, nire ohorearen gainean, epaitegien hurrengo saioan urkarazi egingo dizudala.

Begirada zakarra bota zioten elkarri; baina kapitainak etsi egin behar izan zuen laster, eta labana gorde eta jarlekura itzuli zen, purrustadaka, txakur makilatua bezala.

—Eta, orain, jauna —jarraitu zuen sendagileak—, badakit nolako morroia dabilen nire barrutian. Egon zaitez seguru gau eta egun zainduko zaitudala. Ez naiz sendagilea bakarrik, epailea ere banaiz eta.

Geroxeago, zaldia iritsi zen atera, eta joan egin zen Livesey doktorea. Harrezkero, kapitaina bare-bare egon zen gau hartan eta beste askotan.



Altxorraren uhartea literatura unibertsaleko abentura-
eleberririk garrantzitsuenetakoa da. Robert Louis Ste-
venson mapekin liluratuta zegoen, eta, 1881eko udako
goiz batean, bihozkada baten eraginez, hitz hauek
idatzi zituen mapa haietako batean: **ALTXORRAREN
UHARTEA.**

Horrelaxe hasi zen Jim Hawkins gazteak, Smollett
kapitainak, Livesey doktoreak eta John Silver sukaldari
«bereziak» bizi izandako abentura zoragarria. *Hispa-
niola* itsasontzian ikusiko ditugu, Flint kapitainaren
altxorraren bila.

